

Gontzalen ameskaitza



Uztaila da. Gontzal eta bere gurasoak oporrak prestatzen ari dira. Ez dakite nora joan, horregatik bidai-agentzia batera joan dira. Orain agentzian daude. Gurasoak gizon batekin hitz egiten ari dira. Gontzal, oso aspertuta, besaulki batean dago eserita.

—Abuztuan bidaia bat nahi duzue? —esaten du agentziako gizonak.

—Bai, safari bat —dio aitak.

—Ama, nora joango gara? —galdetzen du Gontzalek.

—Afrikara, animaliak ikustera. Egon lasai. —erantzuten du amak.



Keniara joango dira safari bat egitera. Baina hori datorren astean izango da. Orain etxera joango dira afaltzera eta lo egitera. Gontzal oso nekatuta eta urduri dago. Laster Afrikako animalia eder horiek ikusiko ditu: elefanteak, tigreak, lehoiak, jirafak... Azkenean, lotan geratu da eta ametsetan dago.

Kontatuko duzu Gontzalen ametsa?. —Non dago? Norekin dago?. — Zen gertatzen da?...

Ametsak, ametsak dira: batzuk onak, beste batzuk txarrak. Gontzalena, hasieran polita, baina azkenean txarra izan da. Amets guztiak bukatu egiten dira...

—Gontzal, esnatu. Ordua da! —dio amak.

Gontzalek, ametsetan oraindik, erantzuten du:

—Alde hemendik! Utzi baketan!



GONTZALEN AMESKAITZA

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Zertan ari dira Gontzal eta bere gurasoak?

.....

2.- Zer ez dakite?

.....

3.- Nora joan dira?

.....

4.- Nola dago Gontzal agentzian?

.....

5.- Nora joango dira oporrak pasatzera?

.....

6.- Zer ikusiko du laster Gontzalek?

.....

7.- Nolakoa da Gontzalen ametsa?

.....

8.- Zer gertatzen zaio Gontzali ametsetan?

.....

9.- Nork esnatzen du Gontzal?

.....

10.-Non dago katua?

.....